

Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak UZEIrekin hitzarmena izenpetu dute

Nafarroako Gobernuak eta Arabako Aldundiak baztertu egin dute sinatzea

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bost urterako hitzarmena izenpetu zuten atzo UZEIrekin (Unibertsitate Zerbitzuetako Euskal Ikastetxea). Nafarroako Gobernuak eta Arabako Diputazioak, berriz, konbenioan zuzenean parte hartzea baztertu eta beste era batera egingo dutela iragarri diete erakunde sinatzaileei.

MARI KARMEN GARMENDIA Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde eta Ogasun kontseilaria, Luis Mari Bandres Gipuzkoako Kultura diputatua eta Jabier Saizar UZEIko burua izan ziren atzo Lehendakiritzan hitzarmenaren sinaketa ekitaldian.

Bost urterako konbenioa da, beste horrenbeste luzatzeko modua du, eta segida eman dio 1997. urtean izenpetu zutenari.

UZEIk lanean dihardu euskararen banku terminologikoaren inguruan (Euskal-term), eta, era berean, lexikografiari buruzko beste zenbait lanetan ere. «Euskararen normalizaziorako berebiziko garrantzia duen ekimena» dela nabarmendu zuen Garmendiak.

Hitzarmen nagusiaren babesean urte bakoitzekoak



MIREN SAEZ

Gipuzkoako Kultura diputatu Luis Mari Bandres, Jaurlaritzako Ogasun sailburu Idoia Zenarruzabeitia, Kultura sailburu Mari Karmen Garmendia eta UZEIko Jabier Saizar, atzoko sinadura ekitaldian.

sinatuko dira (2000. urtekoa atzo bertan izenpetu zen). Horrela, atzoko ekitaldian zehaztu bezala, honako portzentzaiak jarriko dituzte bi erakundeek: Jaurlaritzak %90 pasatxo eta Gipuzkoako Aldundiak %10 eskas.

Erabakitakoaren arabera, 2000. urteari dagokionez, Gasteizko Gobernuak 25,4 milioi pezeta emango dizkio UZEIri, eta Gipuzkoako Diputazioak, berriz, 2,7 milioi pezeta.

Nafarroa eta Araba, euren kabuz

Bestalde, Nafarroako Gobernuak nahiz Arabako Aldundiak baztertu egin dute Eusko Jaurlaritzarekin edo Gipuzkoako Diputazioarekin batera aritzea UZEIren hitzarmenean. Izan ere, Mari Karmen Garmendia sailburuak adierazi zuen Gobernu nafarrak duela bi aste jakinarazi zuela Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeekin

batera laguntzea baztertu eta UZEI elkartearekin zuzenean hitzartzeko erabakia zuela, hori bai, diru laguntzan murrizketarik egiteko asmorik gabe.

Bestetik, Arabako Diputazioak ere Euskaltzaindiaren hitzarmen orokorraren baitan laguntzea erabaki zuen iazko hondarrean. UZEIk erabakia sinbolikotzat jo du, ekarri ekonomiko txikia zuen eta (milioi batetik beherakoa).



JOSEBA OLALDE

Arartekoak egoitza berria du

Arartekoaren egoitza berria aurkeztu zuten atzo eguerdian hedabideentzako ekitaldian (inaugurazio ofiziala Parlamentuak erabakitzeko izango da). Gasteizko Prado kalean da, Eusko Legebiltzarrak moldatutako bulego berrien ondotik. Xabier Markiegi jarduneango Arartekoak adierazi zuen espero duela egoitza berria «erreferentziagune» bihurtzea herri-tarrentzat.

EHk salatu duenez, Errioxako Lurralde Planak eskualdea Logroñorekin uztartu nahi du

■ **Kulturari buruzko atal osoa berridazteko exijitu du**

Erredakzioa / Gasteiz

ARABA «zatitu» egin nahi du Arabar Errioxarako Lurralde Zatiko Planaren aurrerapenak, Arabako Euskal Herriarrok taldeko biltzarkideek kritikatu bezala. Izan ere, herrialdea «desegituratzeko» bidea proposatzea leporatu diote aipatutako testuari. EHko biltzarkideen arabera, plangintzaren helburua da «Arabako Errioxak Logroñoko Riojarekin bat egitea», hots, Euskal Herriko muga, Ebro aldean jarri beharrean, Kantauri mendikatean ipintzea.

EHren irudiko, planak izan beharko lukeen abiapuntua da Errioxa Euskal Herriko zati bat dela. «Ez da inolako aipamenik eskualdeak Arabarekin nahiz Nafarroarekin izan behar dituen komunikazio harremanen gainean», salatu du talde abertzaleak.

«Helburu guztiak, kanpora begira»

EHk dioenez, aurrerapenetan zehaztutako helburu guztiak «kanpora begirakoak» dira, eskualde barneko egituraketa bera ere planteatu gabe.

Biltzarkide arabarrek hainbat gaitzespen agertu dizkiote aurrerapenetan azpiegiturez, etxebizitzaz, ur-horniketaz nahiz beste mota batzuetako arazoez egindako proposamenei.

Dena den, kulturaren inguruko atal osoa berridazteko exijitu dute. «Irakurketa okerra egiten da kulturaz, euskalduntasunari inolako aipamenik egiten ez zaiola», salatu dute.

Euskal nortasuna aparte uzteko, EHren arabera, bi bide darabiltzate planaren taxutzaileek: «Espainiako La Riojarekin» parekatzea edo eskualdeko berezko nortasun kulturala goraiatzeko.

Bestetik, planak «turistikazioaren aldeko apustua» egiten duela kritikatu du EHk, «baina kudeaketa pribatuari lehentasuna emanda, eragile publikoak bazterturik».